



**Arartekoaren 2019R-446-18 Ebazpena, 2019ko martxoaren 15ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu zaio berrikusi dezala diru-sarrerak bermatzeko errentarako prestazio modura ordaintzen duen zenbatekoa.**

### Aurrekariak

1. Herritar batek kexa aurkeztu zuen Ararteko erakundean, ez zegoelako ados Lanbidek aintzatetsita duen Diru-sarrerak Bermatzeko Erretan aplikatu izan dion 190,49 euroko hileko deskontuarekin. Zehazki, kexagileak azaldu zuenez, ez zekien nondik zetorren deskontua eta ez zioten horren berri eman Lanbideren bere erreferentziako bulegoan.

Erakunde honetan abiarazitako kexa espedientetik ondorioztatzen denez, eskatzaileak 634,97 euroko prestazioa onartu zioten 2017ko ekainaren 24ko ebazpen baten arabera.

Alabaina, diru-sarrerak bermatzeko errenta aintzatetsi zitzaionetik, Lanbide deskontua aplikatzen ari zitzaion arestian aipaturiko prestazioaren zenbatekoan, baina inoiz ez dizkio ez jakinarazi ez azaldu horretarako arrazoiak. Are gehiago, gehitu zuenez, Lanbideren bere erreferentziako bulegoan azaltzen zenean gaia argitzeko eskatzeko, ez zuen erantzunik jasotzen. Kexagilek adierazitakoaren arabera, behin bakarrik jakinarazi zioten telefonoz honako hau: Lanbidek zorraren jatorriari buruzko informaziorik ez bazuen ere, lehendik jaso izan zuen *“etxebizitzaren alokairurako laguntza”* izan zitekeela. Hala ere, berak dio inoiz ez duela kobratu horrelako laguntzarik.

Horregatik, azalpena emateko idatzizko eskaera egin zuen 2018ko otsailaren 12an, baina kexa erakunde honetan aurkeztu den egunean, oraindik ez du erantzunik jaso.

2. Azaldutako hori guztia ikusita, laguntzeko eskaera helarazi zion Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari. Era berean, erakunde honek, aldez aurretik eta eskaerei erantzuna eman diezaioketen azalpenen zain, aldez aurretiko zenbait gogoeta helarazi zituen, horrelakorik berriz gerta ez dadin. Ondoren emango dira gogoeta horiek.
3. Hasierako informazio-eskaeraren gaineko erantzunik jaso ez zenez, Arartekoak errekerimendu bat igorri zion sail horri, eta berariaz erantzun behar zuela gogorarazi zion.



4. Bestalde, espediente hori izapidetzen ari ginela, Lanbidek erakunde horretako zuzendari nagusiaren txostenaren bitartez erantzun dio Arartekoari, eta, adierazitakoa ez ezik, honako informazio hau jakinarazi digu:

*"Interesdunaren espedientea aztertuta, egiaztatu dugu haren prestazioan egindako deskontua Aldundiarekin zuen zor baten ondoriozkoa dela, eta zor hori haren espedienteko gainerako datuekin batera transferitu zela. Horrenbestez, Aldundiak argitu beharko lituzke zor hori sortzeko eta jakinarazteko arrazoiak"*

Erantzun labur hori ikusita, eta deskontua egiteko arrazoia berri artean ez zuzenez gero, ezta prestazioak itzultzeko ebazpenaren data ere ez zekienez gero -beraz, ezin jakin zitekeen erreklamazioak preskribatu ote zuen-, erakunde hau berriz ere zuzendu zitzaion Lanbideri. Orduan, erakunde autonomoak Arartekoari erantzun zion eskatzailea diru-sarrerak bermatzeko errentaren hartzailea izan zela aurretik, 2003tik 2015era, harik eta prestazioa jasotzeko baimendutako diru-sarrerak gainditzearen zioz prestazioa bukatu zitzaion arte. Era berean, hau xe gehitu du: Foru Aldundien prestazio ekonomikoak izapidetzearekin eta ebaztearekin loturiko eskumenak Lanbideri<sup>1</sup> eskualdatu ondoren, kexagilearen espedientea eskualdatu zen, Arabako Foru Aldundia (hemendik aurrera) 2010eko abendutik aplikatu izan zitzaion zorraren konpentsazioari buruzkoa.

5. Aldi berean, kexagileak hainbat alditan eskatu du informazioa idatziz, baita bere espedientea eta eskatzen zaizkion zenbatekoen zio diren ebazpenen kopiak eskuratzeko ere, bai Lanbiden, bai AFAn.

Lanbiden 2018. urteko otsailaren 12an bidegabe jasotako eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioan konpentsaturiko diru-kopuruen itzulketa eskatzeko aurkezturiko lehen idatzian, erakunde autonomoak honako hau erantzun zion kexagileari, Diru-sarrerak Bermatzeko Koordinatzailearen 2018ko urriaren 24ko txostenaren bidez:

*"El expediente del que emana su pregunta es el 2003/RGI/004287. Recordar que Lanbide-Servicio Vasco de Empleo es competente en materia de RGI desde diciembre del 2011. Por lo tanto, las resoluciones anteriores no constan en el aplicativo de Lanbide, pudiéndolas solicitar en la Diputación Foral de Álava.*

*En cuanto a la explicación de las compensaciones producidas en su prestación de RGI, decir que procede del expediente 2003/ RGI/004287. En él, tiene una*

---

<sup>1</sup> Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legea indarrean sartu ostean, prestazioaren kudeaketa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari dagokio; beraz, foru-aldundia aipatzen denean Lanbide esan nahi dela ulertu behar da.

*deuda de 6.279,10 euros que ha sido abonada por compensación desde el 28 de diciembre del 2010 y finalizada el 31 de diciembre de 2017.*

*Por otra parte, usted tenía otra deuda de 209,65 euros, la cual, mediante compensación fue abonada los pasados meses de diciembre del 2017 y enero del 2018.*

*Por último, durante los meses de enero, febrero, marzo, abril, mayo, junio, julio, septiembre, noviembre y diciembre del 2011 por "saldo insuficiente" en el fraccionamiento de su cantidad indebidamente percibida, durante el presente año y cada mes se le descontó de su RGI 180€ mensuales hasta este mes de octubre de 2018 que el descuento fue de 97,03€, habiendo finalizado el procedimiento de reintegro. Por lo tanto, si persisten las condiciones para percibir la RGI, el próximo mes de noviembre usted recibirá el importe íntegro".*

Halaber, eskatzaileari idatziz emandako ondoren erantzun batean, Lanbidek berriz dio Lanbide diru-sarrerak bermatzeko errentaren arloko eskuduna izan aurreko aldietatik zetozela prestaziotik deskontaturiko diru-kopuruak. Bestalde, zorrak 2010eko abenduaren 28tik hasi ziren konpentsatzen, eta 2018. urteko urriaren bukatu. Azkenik, erakunde autonomoak honako hau jakinarazi dio kexagileari:

*"Desde que Lanbide es competente en materia de Renta de Garantía de Ingresos, es decir, diciembre de 2011, se le ha ido compensando dicha deuda no habiendo estado nunca en situación de embargo ni en las deudas en periodo ejecutivo, pues se han ido compensando regularmente de su prestación".*

AFAtik jasotako erantzunari dagokionez, alde batetik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Sailak ziurtagiria eman zuen, 2018ko irailaren 24an zerga-betebeharrak egunean izateari buruzkoa. Beste alde batetik, bere espedientea eta Lanbidek nominan aplikatzen zion deskontua itzultzeari buruzko ebazpenen kopia eskuratzeko eskaeraren aurrean, AFAko Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Sailak honako informazio hau igorri zion kexagileari 2018. urteko urriaren 5ean:

*"Una vez consultadas las bases de datos de Recaudación Ejecutiva de la Diputación Foral de Álava, le informo que no figura Ud. En las mismas como deudora en los últimos cuatro años, por lo que no es posible que los citados descuentos sean embargos dictados por la Diputación Foral de Álava por deudas con esta Diputación o sus Organismos Autónomos o entidades públicas conveniadas".*

6. Azaldutako aurrekarietan oinarrituz, eta beharrezkoak diren egitate nahiz oinarriak daudela iritzita, honako gogoeta hauek egiten dira:



## Gogoetak

1. Lehenik eta behin, azpimarratu behar da ezen, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53.1. artikuluan (hemendik aurrera, APEL) ezarritakoarekin bat etorriz, "Interesatuak administrazio prozeduran dituen eskubideak" izenburu pean, legean ezarritako gainerako eskubideez gain, honako eskubide hauek dituztela administrazio prozedura bateko interesatuek, besteak beste:

*"a) Noiznahi jakitea interesdun diren prozeduren izapidetzea nola doan; administrazio-isiltasunak zer esanahi duen, Administrazioak ez badu epean ebazpen espresurik ematen ez jakinarazten; zer organo den eskudun instrukziorako, hala badagokio, eta ebazpena emateko; eta zer izapide-egintza eman dituen. **Eskubidea izango dute, orobat, prozeduretan jasotako agiriak eskuratzeko eta haien kopia lortzeko**"<sup>2</sup>.*

Espedientean defentsarako eta alegaziorako eskubideekin loturiko adierazpentzat jo behar da itzulketa prozeduraren izapidetzearen egoeraren berri izateko eta prozedura horretako dokumentuen kopia eskuratzeko eskubidea. Espainiako Konstituzioaren 105. artikuluan ezarritako oinarritzko eskubidea da<sup>3</sup>.

Horrez gain, pertsona guztiek, Herri Administrazioekiko harremanetan, **jendaurreko informazioa, artxiboak eta erregistroak eskuratzeko eskubidea** dute, APELren 13.d) artikuluan eta gardentasunari, jendaurreko informazioa eskuratzeari eta gobernamentu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritakoarekin bat etorriz. 19/2013 Legearen 13. artikuluan xedatuenez, jendaurreko informazioa da edozein herri administrazioaren edo sektore publikoko erakundearen eskuetan dauden eta beren eginkizunak betetzean egin edo eskuratu diren dokumentuen edo edukien multzoa. Eskubide hori soilik murriztu ahal izango da informazioa eskuratzeko nazio segurtasunerako edo kanpoko harremanetarako arriskua ekar dezakeenean (14. art.), baina horretarako, justifikazioa eman behar da eta proportzioz jokatu.

---

<sup>2</sup> Azpimarra, Arartekoarena.

<sup>3</sup> Espainiako Konstituzioaren 105. artikulua:

*"Legeak arautuko du:*

*a) Herritarrei entzueraz ematea, zuzenean edo legez aitortutako erakunde eta elkarte bidez, eragiten dieten administrazio-xedapenak egiteko prozeduran.*

*b) Herritarrek irispidea izatea administrazioaren artxibo eta erregistroetara, salbu eta Estatuaren segurtasunari eta defentsari, delituen ikerketari eta pertsonen intimitateari dagozkienetan.*

*c) Administrazio-egintzak sortzeko segitu beharreko prozedura, interesatuari entzueraz ematea bermatuz, bidezko denean.*





**Administrazioaren jarduera kontrolatzeko mekanismo** gisa duen eraginkortasuna bi alderdi hauetan gauzatzen da: batetik, interesatuak helburua ebazten deneko edo interesa dagoen prozeduraren izapidetzearen egoera une oro ezagutzeko eskubideari dagokionez duen posizioa, eta bestetik, herritarrek oro har administrazio publikoen funtzionamenduaren berri izateko duten eskubidea aintzatestea.

Hala eta guztiz ere, eta hainbat alditan berriaz eskatu badu, **Lanbidek ez dio inoiz eman interesatuari kasu honetako itzulketaren espedientea eta, horren ondorioz, eskaturiko zenbatekoa zor zuela ondorioztatzeko arrazoiak zekartzen dokumentua ere ez.**

2. Horrez gain, espedientean jasotako dokumentazioari erreparatuta, Arartekoak egiaztatu du atzerapen handia izan duela Lanbidek egindako jardunetan, berraztertze errekurtsoa ebazteko epeari dagokionez, bereziki. 5. aurrekarian aipatuenez, kexagileak idatziz eskatu zuen 2018ko otsailaren 12an bidegabe jasotako eta dagoeneko diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioan konpentsatzen ari zitzaizkion diru-kopuruen itzulketari buruzko azalpena, baina erakunde autonomoak ez zuen erantzun 2018ko urriaren 24ra arte, hau da, eskaturiko zorren itzulketa amaituta zuenean.

Horri buruz, egokia dirudi Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 41. artikulua xedatutako **herri-administrazio onerako oinarrizko eskubidea** aipatzea. Haren arabera, pertsona orok du eskubidea Europar Batasuneko erakunde, organo eta erakundeek haien kontuak modu inpartzialean eta bidezkoan zentzuzko epe baten barnean azter ditzaten.

3. Nolanahi ere, Lanbidek dio itzulketaren prozedura dakarren espedientea (2003/RGI/004287) ez dagoela jasota erakundearen aplikazioan, zeren eta artean AFAk prestazio ekonomikoak kudeatzen zituenean sortutako zorra baitzen.

Diru-sarreraren Bermerako eta Gizarte Inklusiorako Legea aldatu zuen azaroaren 24ko 4/2011 Legean, aldaketa bat sartu zen kudeaketa eremuan, honako honetan gauzatua: **Eusko Jaurlaritzak Lanbideren bitartez, bere gain hartzea diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria izapidetzearekin eta ebaztearekin lotutako eskumenak.** Alabaina, hauxe deklaratu du lege horren lehen xedapen iragankorrean **eskumena Lanbideren alde eskualdatzeari** dagokionez:



*"1.- Lege hau aplikatuko zaie indarrean sartzen denetik aurrera hasitako prozedurei. Lege hau indarrean sartu aurretik hasitako prozedurek aurreko araudia izango dute jarraibide ondorio guztietarako.*

*2.- Lege hau indarrean sartu aurretik hasitako prozeduretan, honela jokatuko da:*

*a) Udalak espedientea hasi bai baina ebazpen-proposamenik egin ez badu dagokion foru-aldundira bidaltzeko, kasu horietan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ebatziko du espedientea.*

*b) Espedientea bidali bazaio dagokion foru-aldundiari ebazpena emateko, aldundiak ebatziko du eta ondoren Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura igorriko du bigarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera".*

Espedienteen **eskualdatzeari** dagokionez, hauxe xedatu da bigarren xedapen iragankorrean:

*"1.- Lege hau indarrean sartu, eta bi hilabeteko epean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura bidaliko dira diru-sarrerak bermatzeko errentaren, etxebizitzako prestazio osagarriaren eta gizarteratze aktiborako hitzarmenen espediente ebatzi guztiak.*

*2.- Lehenengo xedapen iragankorraren 2. paragrafoko a) idatz-zatian aipatzen diren espedienteak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura bidali beharko dituzte udalek hark ebatzi ditzan. Horretarako epea hamabost egunekoa izango da, lege hau indarrean sartzen denetik kontaktzen hasita.*

*3.- Lehenengo xedapen iragankorraren 2. paragrafoko b) idatz-zatian aipatzen diren espedienteak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura bidali beharko dituzte foru-aldundiek. Horretarako epea bi hilabetekoa izango da, ebazten direnetik kontaktzen hasita".*

Foru Aldundiek espedienteak eskualdatzeko prozesuan, zailtasunak izan ziren, zeren eta ez baitzegoen diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria prestazio ekonomikoak kudeatzeko organoaren aldaketa eta Lege berriak dakarren eredia kudeatzeko neurri egokirik. Horren ondorioz, gabezia larriak izan ziren espedienteen eta espedienteek zekarten informazioaren kudeaketan, hain zuzen ere krisi ekonomikoan bete-betean. Izan ere, diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoen eskari kopuruak gora egin zuen garai hartan.

4. Lanbidek kexa-espedienteen izan duen jardunaren ondorio zuzena da **defentsarik eza** kexagilearentzat, zeren eta bere diru-sarrerak bermatzeko errentaren nominatik konpentsatu baita erreklamaturiko diru-kopurua itzulketa

egiteko prozedura batean oinarrituta, baina ez dakigu nondik datorren prozedura hori. Ez zaio jakinarazi eta, horrenbestez, ezin izan du errefusatu.

Kasu honetan, erakunde honek uste du Lanbidek prozedurako arauak ez betetzeak eragina duela kexagileak defentsa eraginkorrerako duen eskubidean eta, beraz, egiaz kaltea eragin zaie haren interesei, zeren eta alegatzeko, frogak egiteko eta, hala denean, kontrako argudioen aurka egiteko eskubiderik gabe gelditu baita<sup>4</sup>.

Berriz ere esan behar da eskatzaileak hainbat alditan eskatu duela informazioa, ahoz nahiz idatziz, Lanbiden eta Arabako Foru Aldundian, baina ez du jaso itzultzeko prozeduraren oinarriari buruzko ziodun erantzun zehatzik. Kexagileari eta Arartekoari igorritako erantzunetan ez da sartu erreklamaturiko diru-kopuruaren kalkuluari buruzko aipamenik ere.

Alde horretatik, Arartekoari egokia iruditu zaio Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 3. Epaitegiaren otsailaren 6ko 46/2018 Epaian jasotako gogoetak jakinaraztea:

*“Se viene observando e un tiempo a esta parte como Lanbide reclama cantidades como ingresos indebidos, cuyo origen se encuentra en una resolución o una causa que dista prácticamente el tiempo de prescripción de cuatro años previsto, para la recuperación de ingresos indebidos.*

*La distancia temporal entre el origen del reintegro y la incoación de este, con mayor razón, en supuestos como el presente en el que la causa por la que se declara el ingreso indebido, ni siquiera hunde sus raíces en una resolución, exigen una mayor precisión en la exposición de las operaciones realizadas para el cálculo de la cantidad a reintegrar (...).*

*Y la facilidad probatoria para Lanbide es total, frente a la mayor dificultad que tiene el administrado para la verificación de los cálculos que permitan conocer la exactitud de la cantidad que se les reclama, contenido esencial en definitiva de la resolución de reintegro, máxime cuando hunde sus raíces en una resolución previa de la que trae causa y que resulta en la mayoría de supuestos inatacable. Esto hace que el contenido esencial de la resolución de reintegro sea la cantidad y por ello es necesario conocer su origen”.*

5. Bestalde, **itzultzeko prozeduraren arauketa** Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren VI. kapituluan xedatuta dago. Nahitaez itzulketa egin beharra dago baldin eta, aldatzeko, eteteko edo

---

<sup>4</sup> Ildo horretatik, Konstituzio Epaitegiaren epai hauek, besteak beste, aipatu dira: 31/1984, 48/1984, 70/1984, 48/1986, 155/1988 eta 58/1989.

iraungitzeko prozeduraren ondorioz edo bestelako edozein inguruabarren ondorioz, egiaztatu egin bada bidegabe jaso dela Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta. Euskadiko Ogasun Nagusiaren eskubideei eta eginbeharretarako aplikagarria den araudiarekin bat eginez (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 44. artikulua –irailaren 29ko 3/2006 Legeak haren idazketa aldatu zuen–), itzultzeko eginbehar hori 4 urteko epean preskribatzen du. Ondorioz, Lanbidek 4 urte ditu bidegabeki ordaindu dituen kopuruak eskatzeko.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen bada, Lanbidek indarrean dagoen diru-sarrerak bermatzeko errentatik jasotzen den kopurutik konpentsa edo murriztu dezake hileroko. Murrizketa edo konpentsazio horrek ezin izango da izan diru-sarrerak bermatzeko errentagatik gehienez ere eskuratuko luketenaren % 30 baino handiagoa (betiere inolako baliabiderik ez dagoen kasuan, eta bizikidetzaren unitatean zenbat kide diren kontuan izanik).

Aztergai dugun kasuan, ez da jakinarazi prestazioen erreklamazioaren jatorriko prozedura, erreferentzia zenbakia izan ezik, ezta, erreklamazioa preskribatuta egoteari buruzko informazioa ere. Horrez gain, 2017ko ekainean kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea aintzatestean, Lanbidek ofizioz deskontatu zion gehieneko diru-kopurua, hots, % 30 (190,49€, hilean jaso beharreko 634,97€-etatik).

6. Azkenik, sailari zuzendutako eskaeretan eskaturiko informazioa igortzearen garrantzia helarazi nahi dio Arartekoak Lanbideri. Arartekoaren jarduna eraentzen duen **kontraesan printzipioa** aplikatzeko, nolahi ere, nahitaez jakin behar dira herri zein arrazoi juridiko erabili behar izan dituen herri administrazio jarduleak eskatzaileek zalantzan jarritako administrazioaren erabakia hartzeko. Erakundeak eskaturiko beharrezko informazioak ez izateak zaildu egiten du Ararteko honi legez ezarritako jarduna.
7. Azken finean, Arartekoak egiaztatu duenez, kexa-espeditente hau izapidetu ondoren, urratu egin da kexagilea interesatua deneko prozeduren izapidetaren egoeraren berri izateko duen eskubidea –hain zuzen ere aipaturiko diru-kopurua eskatzeko prozedurei buruz-, baita horietan bildutako dokumentuen kopiak eskuratzeko ere (aipaturiko APELren 53.1. artikulua). Horrenbestez, kexagileak ezin izan du jakin zein kalkulu egin dituen Lanbidek bidegabe jasotako prestazioen ziozko diru-kopuruak erreklamatzeko, ezta Lanbidek aintzatestea zuen diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioaren zenbatekoan deskontua aplikatzeko jarduketaren aurrean defendatzeko ere.





Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Arartekoak honako gomendio hau egin nahi dio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

### GOMENDIOA

1. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren ziozko prestazio ekonomikoak itzultzea ebatzi duen espedientea berrikus dadila, zorra zerk eragin duen jakiteko eta zorra nahitaez ordaindu beharra deklaratzeko ezarritako administrazio prozedura bete den jakiteko.
2. Eskaturiko administrazio espedientearen kopia eman diezaiola kexagileari.
3. Baldin eta prestazioak erreklamatzeko espedienteari buruzko informaziorik ez badu, zorra ordaintzeko deskontatu edo konpentsatu diren diru-kopuruak itzul diezazkiola kexagileari. Izan ere, zentzuzko zalantzak daude zor hori ba ote dagoen, zorraren jatorriari buruzko informaziorik ez dagoelako.

